

Eigobar - 1305. zenb.  
XXX urtea - 2023-11-10



TOKIKOM

BARREN

# Arrakasta ulertzeko saiakera

Jasone Osoro



## 10 Egun Kia.

Azaroaren 9tik 20ra.

**NAIA CAR**

Apalategi auzoa,1  
Eibar. Gipuzkoa

Webgune **BERRIA!**

[www.gruponaicar.com](http://www.gruponaicar.com)

📞 943 70 70 33

**KIA**

Kontu-datua eskaintzaren baldintzak eta betekizunak [www.kia.com](http://www.kia.com) helbidean  
Eskaintza honek Perintsulako, Baskar Uharteetako, Melillako eta Andorrako konitzezionario sare osorako balio du.



Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoan erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zalao Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Leire Kerexeta, Anjel Ugarteburu. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://facebook.com/barrenaldizkaria)



[twitter.com/barreneus](https://twitter.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://instagram.com/barrenaldizkaria)



[youtube.com/@Elgoibarrennet](https://youtube.com/@Elgoibarrennet)

Ane Kortaberria

Kazetaria

## Lorpena askotan ez da zorte kontua



***"Kexatzea naturala da, bai, baina ahalegintzea beharrezkoa da, zalantzarik gabe"***

**B**ARRENERako idazten jartzen naizen bakoitzean mila ideia etortzen zaizkit burura eta amaieran beti galdetzen diot nire buruari ea interesgarria edo baliagarria izango den idazten ari naizena zuentzat, irakurleontzat. Erantzuna batzutan baiezkoa izango da eta beste batzutan ezezkoa, ezinezkoa delako beti denen gustuko zerbait egitea. Hala ere, badakit ahalegina egiteak bere balioa duela, gehienetan bezala. Horregatik hitz egin nahiko nuke gai honen inguruan: saiatzeari eta esfortzuari buruz. Gai tipikoak direla ematen du hasiera batean, baina askotan ahaztu egiten zaizkigula iruditzen zait.

Orokorrean ondo ateratzen diren historiak entzutera ohituta gaude eta guk ere nahi gabe gure bizitzaren alde positiboa erakusten dugu, erosoena delako. Izan ere, nori gustatzen zaio egoera txar bat bizitzen dagoela onartzea denen aurrean? Esango nuke ausardia hori duten oso jende gutxi dagoela eta oker banabil, mesedez, norbaitek zuzendu nazala.

Horren harira, emaitza positiboak lortu dituen pertsona batekin topo egiten den unean, askotan jotzen da honek izan dezakeen zorteari buruz kexatzera edo inbidia negatiboarekin kritika egitera. Iruditzen zait gutxitan hausnartzen dugula pertsona horrek aurretik egin duen esfortzuari buruz eta gure indarra aukerak bilatzen jarri beharrean, gure egoera justifikatzeko aitzakiak jartzen gastatzen dugula.

Argi dago batzuetan ahalegintzearekin ez dela nahikoa, baina apur bat erlatibizatzea komeni zaigu eta honekin batera gure egoera zein den kontuan hartzea. Izan ere, gehiengo batek uste baino pribilegio gehiago, gure inguruko babesa eta (batzutan horrela ez dela dirudien arren), gizarte aurreratu batean jaiotzeko aukera izan dugulako. Beraz errepikatu egiten dut, kexatzea naturala da, bai, baina ahalegintzea beharrezkoa da zalantzarik gabe.

*BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus*

-----

### **Hizkuntza eskubideak babesteko protokoloa**

Azaroaren 4ko manifestazioa ez dadin amaiera izan, oldarraldi judizialari erantzun irmoa emateko tresna bat garatu du Euskalgintzaren Kontseiluak: Oldarraldiaren aurrean hizkuntza eskubideak babesteko protokoloa.

Hizkuntza eskubideen aurkako erasoen harira antolatzeko eta saretzeko asmoz sortu dute protokoloa, euskalgintzaren eta hizkuntza eskubideen defentsan sinesten duten eragileen arteko harremana eta elkarlana hauspotzeko hain zuzen ere.

Protokoloa irekia izango da, erantzunak eta esperientziak metatu ahala, eragileen ekarpenak jasoz, indargune eta ahulguneak identifikatuz, protokolo hau aberastuz eta egokituz joango da. Parte hartzea eta ekarpenak egitea ezinbestekoa izango da oldarraldiari aurre egitetik euskararen normalizazioan aurrera egitera jauzi egiteko. Horregatik, protokoloa webgunean ikusgai jarri dute: [kontseilua.eus/protokoloa](http://kontseilua.eus/protokoloa).

Protokoloa honela hasten da: "Gizaki orori dagozkio, Deklarazio honetan adierazitako eskubide eta askatasun berdinak; ez da inor diskriminatuko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik". (Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala, 2. artikulua)

**A.A.**

### **Gutxi gabela pentsatzen dutenentzat... herritarren ahotsa**

Elgoibarko ikasle zein langile talde handi baten izenean hitz egitera gatoz. Asteazkena, azaroak 8, Elgoibarko autobus geltokian arazo honen beste kapitulu bat izan dugu: Autobusa iritsi baino 15 minutu lehenago agertu gara geltokira, errefortzuko autobus mamu horiek agertuko zirelakoan, eta gaur ere, ez dira agertu.

Batzuek gutxi gabela pentsatu arren, goizero Elgoibarko autobus geltokian 30-40 pertsona

biltzen gara, unibertsitatera zein lanera joateko. Tamalez, egun puntual batzuetako arazoa zirudiena, egonkortu egin da. Gatazka honen aurrean, gure alde borrokatu eta irtenbideak bilatu behar dituztenek alde batera uzten gaituzte, bizkarra emanez. Informazio falta daukagu, eta inpotentzia izugarria sentitzen dugu, autobusak beteta iristen direlako, elgoibartarrentzat leku gutxi batzuk eskainiz. Ideia hau izaten dugu egunero buruan: "Geltokira lehena iritsi beharra daukat autobuseko plaza gutxi horietako bat lortzeko". Eta ez dugu ahaztu behar Bilbora eta Gasteizera egunero doazen erabiltzaileen egoera are kezagarriagoa dela, Elgoibartik ez dagoelako hiriburu hauetarako zerbitzu zuzenik.

Guretzat ere ezinbestekoa da gure arduetara ordurako iristea, eta errealitate honen aurrean, geltokiko ilaran lehena izateko lehian gabiltza. Egoera tristea da, irtenbideen ordez, gure artean "lasterketak" ere ematen direlako. Askotan gai honen inguruan txiste berbera egiten dugu: "Bihar autobus geltokiko ilaran lehena izateko, kanpin-denda jarri eta bertan lo egin behar ahal dut?".

Asteak pasatu dira arazo honen berri prentsan eman zenetik, eta gutaz barre egin duten sentsazioarekin joaten gara etxera. Irtenbideak eman baino gehiago, gure gain ezarri dute arazoaren ardura, eta pertsona bakoitzak unibertsitatera iristeko bere kabuz bideak aurkitu behar ditugula sentitzen dugu; txantxa dirudi, baina errealitatea tamalgarria da benetan. Batzuetan, "errefortzuko busak" agertzen dira, hori bai, beraiek nahi duten orduan; hamar minutu lehenago, ordu erdi beranduago... eta bestetan azaldu ere ez. Erakunde arduradunei esan nahiko genieke, garraio publikoak dituen gabeziak konpontzeko ezer egiten ez bada, nekez konponduko direla egungo hutsuneak. Bizkarra ematen jarraitzen duzuen heinean, sektore publikoaren gabeziek agerian egoten jarraituko dute. Noizbait gudan pentsatu eta egoera hau konpontzeko neurriren bat hartzeko intentziorik baldin baduzue, gogoratu, tiritu batek zauri bat estal dezakeela, baina infekzio baten aurrean, haren funtzioa motz geratzen dela. Horregatik, gehiegi pentsatu gabeko irtenbideak beharrean, neurri eraginkorrek hartu behar direla uste dugu.

**J.C.**



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)



943 744 112





688 655 658



### San Roke kalean erortzeko arriskuan dago farola bat:

"Farola baten postea zulatuta dago ia bere osotasunean, eta azkenaldiko haize bolada bortitz hauekin erortzeko arriskua dagoela iruditzen zait. Poste barruan kableak daude, eta arriskutsua da hori egoera horretan egotea. Eskertuko genuke konpontzea, ezbeharren bat gertatu aurretik".



### Herriko izkinak ez dira txakurrek pixa egiteko tokiak:

"Herriko bazterrak zikin-zikin daude, txakurrek edozein lekutan egiten dutelako pixa. Errua txakur-jabeena da, izan ere, kaka jasotzeko derrigortasuna sentitzen dute batzuek, baina pixa edozein lekutan egitea libre dela uste dute. Denda atariak, portalak edota haur parkeak ere ez dituzte errespetatzen. Gure establezimenduko atarian pixa usaina egoten da egunero, eta pertsiana ere janda daukagu pixaren ondorioz. Eta txarrena da txakur jabeei zeozer esanez gero, erantzun txarrak jasotzen ditugula. Ez dago eskubiderik!".



### Ikusi dut Kirol Patronatuak 4-14 urte bitarteko gazteentzako dantza urbanoen ikastaroa antolatu duela.

**Oso ongi ikusten dut dantza eta gorputz adierazpenaren dibertsitatea kontuan izanda eskaintza zabala izatea, baina oso negatiboki arreta deitu dit, ordea, reggaeton ere eskaintzen dela ikusteak. Agian reggetoiari buruz ez dut asko jakingo baina, ulertuta dudanagatik musika mota horrek, askotan, mezu sexistak eta matxistak goraiatzen ditu. Berdintasuna bultzatu nahi duen herri bateko patronatuak hori eskaintzea koherentea al da?:**

BARRENEK Udalera jo du eta hau erantzun diote: "Elgoibarko Udalaren eskaintza aniztasunean eta inklusioan oinarritzen da, eta dantza urbanoen kasuan, hainbat estilo hartzen ditu bere baitan, gazteen sormena eta adierazpen askatasuna sustatzeko

asmatan. Regetoia kontuan hartzeak ez du esan nahi kasu batzuetan izan ohi dituen letrak edo mezuak onartzen ditugunik. Gure programazioan, musikaren eta dantzaren alderdi artistiko eta pedagogikoari lehentasuna ematen diogu, eta irakasleekin lankidetzan dihardugu, eduki egokiak aukeratzeko eta errespetuzko baloreak indartzeko. Zorionez, gaur egun posible da popa, trapa, hiphopa, regetoia eta dantza urbanoa lantzea berdintasunaren, aldaketa sozialaren, errespetuaren, pertsona guztien duintasunaren, aniztasunaren, maitasunaren, etikaren eta estetikaren aldeko letrak entzuten diren bitartean. Egin daiteke eta egin behar dela uste du Elgoibarko Udalak. Edozein kezka edo iradokizun entzuteko prest gaude, berdintasunaren eta hezkuntza positiboaren aldeko konpromiso irmoarekin. Eskerrik asko zure ekarpenagatik. Komunitate moduan hazten eta ikasten jarraituko dugu".

## Gailu elektronikoei euskaraz erakusteko grabazioak egingo dituzte abenduaren 2an

**G**ailu teknologikoetan euskararen presentzia sustatzeko Gaitu kanpaina jarri dute martxan, eta Elgoibarko Udalak eta Elgoibarko Izarrak bat egin dute kanpainarekin. Gailuek euskara ulertu dezaten, baina, aurrez irakatsi egin behar zaie, eta horretarako jendearen ahotsa behar dute, grabazioak egiteko. Ahots asko eta askotarikoak behar dituzte, adin tarte, genero eta mota guztietakoak. Grabazio guzti horiekin ahotsen datu-basea osatuko dute, eta gero enpresa guztiek erabili ahal izango dute euskarazko tresna eta aplikazio berriak sortzeko.



Nahi duenak *gaitu.eus* webgunean egin ditzake grabazioak. Horrez gain, Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, Elgoibarko Izarrak eta Udalak abenduaren 2rako antolatu dute grabazioak egiteko ekitaldia. Aita Agirre kulturgunean izango da, 11:00etatik 14:00etara. Ekitaldia antolatu ahal izateko, izena aurrez emateko eskatu dute arduradunek: 643 499 469 / 943 741 626.

### Parkinsonari buruzko hitzaldi-tailerra, astelehenean

Elgoibarko Udaleko Gizarte Zerbitzuen Sailak eta Deparkel elkarteak Parkinson gaixotasunari buruzko hitzaldi-tailerra antolatu dute astelehenerako. Deparkel elkarteko Nerea Fernandez psikologoak emango du, eta Parkinsona ikuspegi psikologikotik landuko dute. Deparkeleko arduradun Naiara Mugertzak, bestalde, elkarteak ematen dituen laguntzei buruzko informazioa emango du. 17:30ean izango da, Kultur Etxean.

### Elgoibarren ere salgai daude Zuberoko ikastolen aldeko saskiak

20 urte beteko ditu aurten Zuberoko ikastolei laguntzeko ekintzak, eta Elgoibarko Izarrak Zuberoko ikastolei laguntzeko aukera eskaini nahi die elgoibartarrei aurten ere. Horretarako, Zuberoko produktuz betetako hiru saski jarriko dituzte salgai: Pettarra 50 eurotan, Arbaila 57 eurotan eta Basabürüa 68 eurotan. Eskariak egiteko: [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus) helbidera idatzi edo 943 741 626 telefonora deitu daiteke, azaroaren 24ra arte.

### Bi administrari laguntzaile behar ditu Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Udalak administrari laguntzaileen bi plaza betetzeko deialdia argitaratu du, Lanbiderekin elkarlanean. Jardun osoko lanaldia izango da, eta lau hilabeteko iraupena izango du. Administrazio eta Kudeaketa alorreko goi mailako ikasketak eta EGA edo euskarako C1 titulua edo baliokidea edukitzea beharrezkoa izango da. Langabezian egon eta Elgoibarren edo Debabarrenean (Eibarren izan ezik) bizi direnek eman dezakete izena lanposturako. Interesatuak Lanbideren Elgoibarko egoitzan edo [lanbide.eus](http://lanbide.eus) webgunean eman dezakete izena.

### Emakumeentzako autodefentsa ikastaroa antolatu dute Mendaron

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko eguna da azaroaren 25a, eta horren harira, emakumeentzako autodefentsa tailerra antolatu dute Mendaron. Azaroaren 18an izango da, 12:00etatik 14:00etara, Mendaroko kultur etxean. Knockout klubeko Isabel Gomezek emango du ikastaroa, eta autodefentsarako oinarrizko ezagutzak irakatsiko ditu. Boxeo irakaslea da, gerriko beltza dauka, 2. Dan krav Maga eta 6. Khan Muay Tai titulazioa ditu. 16 urtetik gorako emakumezkoek hartu dezakete parte. Izena emateko 618 082 531 telefonora deitu behar da.

## AVS enpresak garatu eta muntatutako satelitea jaurtiko dute espaziora datorren urtean



**E**lgoibarko Added Value Solutions (AVS) enpresa ari da garatzen azken hiru urteotan LUR-1 proiektua, Euskal Herrian osorik garatu eta muntatutako estreinako satelitea. Lurra behatzea eta espaziotik argazkiak ateratzea izango da satelite honen zeregin

nagusia, eta ondo bidean Kaliforniatik (AEB) jaurtiko dute espaziora 2024ko erdialdean. AVS-k Arabako Miñao Parke Teknologikoan duen plantan ari dira satelitea garatzen. Jaurlaritzako ordezkariak hara egindako bisitakoa da goiko argazkia.

### Odol ateratzeak egingo dituzte gaur, Elgoibarren, eta gaur zortzi, Mendaron

Odol ateratzeak egingo dituzte gaur, azaroak 10, Elgoibarko Jubilatuen Biltokian. 16:30etik 20:10 arte egongo dira odola ateratzen, eta arduradunek eskatu dute aurrez txanda hartzeko. 623 328 408 telefonoan hartu behar da txanda, Whatsap bidez.

Mendaron, bestalde, gaur zortzi egingo dituzte odol ateratzeak. Arratsaldean izango dira, Mendaroko ikastolan. Txanda hartzeko 747 440 060 telefono zenbakira, whatsapp idatzi behar da.

### Errigoren 10. urteurrena ospatu dute



Errigora egitasmoak 10 urte bete ditu aurten, eta Elgoibarko Errigora komunitateak pintxo pote berezia egin zuen joan zen astean Kultur Kafean, urteurrena ospatzeko. Nafarroako hegoaldean euskara sustatzeko sortu zuten Errigora, eta egitasmoari buruzko bideo bat ikusi zuten

lehenengo. eta, ondoren, Errigoren tomate saltsaz eginiko almandrongilak dastatu zituzten. Errigoren Elgoibarko taldeak eskerrak eman dizkie egitasmoa posible egiten duten guztiei, eta bide batez, Kultur Kafeko arduradunen prestutasuna ere nabarmendu eta txalotu dute.

## Magosto Eguna antolatu du Galiza Etxeak biharko



Udazkeneko ohiturari jarraituz, Magosto Eguna antolatu du Galiza Etxeak biharko. Azken urteetan bezala, Maalako parkean egingo dute. Gaztainak erreko dituzte, eta 11:00etatik aurrera banatuko dituzte, doan. Horrez gain, Galizako ardoa dastatzeko aukera ere egingo da, katiloa bi euroan erosita.

### 400 bat zuhaitz landatuko dituzte bihar, Muskirutzuko lurretan



Elgoibarko Baso Biziak taldeak antolatuta, hemen bertako 400 bat zuhaitz landatuko dituzte bihar Muskirutzuko lurretan, Lurgai fundazioarekin batera. Mintxetako aparkalekuan elkartuko dira, eta handik abiatuko dira autoz landaketa eremura. Eguraldiaren arabera jantzi eta oinetakoak eramateko eskatu dute arduradunek, baina lan-tresnak eta eskularruak beraiek jarriko dituzte. Jana eta ura norberak berea eraman beharko du. Bazkalordurako itzuliko dira.

### Palestinari elkartasuna adierazteko mobilizazioak egin dituzte Elgoibarren eta Mendaron



Gernika-Palestina elkarteak deituta Palestinari babesa emateko mobilizazioak egin dituzte aste honetan Euskal Herrian zehar, baita Elgoibarren eta Mendaron ere. Martitzenean izan ziren elkarretaratzeak Elgoibarko Kalegoen plazan, eta Mendaroko Herriko Enparantzan.

Horrez gain, Debarreneko Kontseilu Sozialistak eta Elgoibarko herritar talde batek, Komunitate musulmanekoak barne, Gazako genozidioa salatzeke manifestazioa egin zuten joan zen zapatuan.



## Hilaren 15ean zabalduko dute kalean bizi direnentzako neguko aterpetxea

Hirugarren urtez jarriko dute martxan Debabarreneko neguko aterpetxea, bazterkeria egoeran eta kalean bizi direnentzako. Eibarren dago, eta 14 lagunentzako lekua dauka (metereologia alerta egoerak daudenean, sei lagun gehiago hartu ditzakete). 20:00etatik 10:00etara ematen du zerbitzua, eta bertaraten direnek afaldu, lo egin eta gosaltzeko aukera daukate. 10:00etatik 12:00etara egin



daiteke eguneko erreserba, eta ordutegi horretatik kanpora, Eibarko Udaltzaingora jo behar da. Erabiltzaileek bi hilabeteko epean bost egunez izango dute aterpetxean geratzeko aukera. Informazio gehiagorako: [negukoeibar@arrats.org](mailto:negukoeibar@arrats.org)

### Elgoibarko 46 saltokik eta Mendaroko bik hartuko dute parte Eusko Jaurlaritzaren bono kanpainan

*Euskadi bono-denda* kanpaina jarri du martxan Eusko Jaurlaritzak, eta Elgoibarko 46 saltokik hartuko dute parte. Bono bakoitzarekin 10 euroko deskontua lortu daiteke, gutxienez 30 euroko gastua eginda. 16 urtetik gorakoek hartu dezakete parte, eta bakoitzak gehienez 5 bonu erabili ahal izango ditu, 50 euroko balioarekin. Bonuak erosketan bakarrean metatu ahal izango dira, edo hainbat erosketatan erabili daitezke, establezimendu bakarrean edo gehiagotan. Abenduaren 5era arte iraungo du kanpainak. Hauek dira kanpainara batu diren saltokiak: Agurtzane ile-apaindegia, Alire estetika, Aranburu bitxitegia, Arauri lurrindegia, Astigarraga kirol-denda, Atelier Oihana, Azkue argazki-denda, Barrutia optika, Biok dekorazioa, Bizkor bizikletak, Cristina Garcia estetika zentroa, Darama bitxi-denda, Decotena koltxoi-denda, Ecenarro mertzeria, Farmazabal, Ferpi modak, G&M jantzi-denda, Garate jantzi-denda, Surya belardenda, Ikus optika, Ipintza, Iriondo kirolak, Iza'k ile-apaindegia, Karkizano, Kima bioestetika, Lagunak, Lete, Mara oinetakoak, Masumis, Iria, N1 zapatilak, Nalai oinetakoak, Olaia Martinez estetika zentroa, Ongi iturgintza, Sarasketa ortopedia, Idama ile-apaindegia, Maria ile-apaindegia, Pitxintxu, Roteta elektrizitatea, Sara jantzi-denda, Uzuri optika, Ederspa, Iosu bitxi-denda, Lau, Iriondo altzariak eta On informatika. Mendaron, Leire jantzi-denda eta Morroskilo.

### 2024ko aurrekontua adosteko proposamena egin dio Elgoibarko EH Bilduk Udal Gobernuari

EH Bilduk proposamena luzatu die Gobernu Taldea osatzen duten EAJ eta PSE alderdi politikoei aurrekontu proposamen bateratua lantzeko, "Elgoibar hobea, ekitatea, partaidetza eta zerbitzu publikoen indartzeko helburuarekin". EH Bilduren ustez, ondorengo sei gai hauek kontuan hartu beharko lirarteke, adostasunean aurrera egiteko:

1. Herribus zerbitzua hedatzea, egun iristen ez den beste auzo batzuetara zabalduz eta zerbitzua doako bihurtuz.
2. Ur publikorik ez duten Urruzuno, Arriaga eta Sallobente-Ermuaran auzoetara ura eramateko proiektua abiatzea.
3. "Ingurumen beharrei estrategikoki eta iraunkortasunez erantzuten hasteko", ingurumen teknikari bat gehitzea udaleko lantaldean.
4. Herriarentzako lurrak erosteko "diru-lerro esanguratsua" ipintzea.
5. Kaleetan, bidegorrietan eta pasealekuetan dabilen jendeak erabiltzeko moduko komun publikoak jartzea.
6. "Etxebizitzaren problematikari aurre egiteko eta soluzio-bideetan sakontzeko", orain arteko baliabideak aztertu eta 2024rako aurrekontuetan "proposamen eraginkorragoak" aintzat hartzea.



## Greba feministara deitzeko amantalez josi nahi dute gaur Kalegoen plaza

✍️ Ainhoa Andonegi / 🗣️ Narrutsik

**Azaroaren 30erako greba feminista orokorra deitu du Euskal Herriko Mugimendu Feministak, eta Elgoibarren ere bat egin dute deialdi horrekin. Narrutsik taldearen ekimenez greba batzordea sortu dute, eta eguenetan batzen dira Kultur Etxeko sotoan. Talde irekia da, eta interesa duen edonork hartu dezake parte. Besteak beste, azaroaren 30aren bueltako egitaraua prestatzen dihardute, eta gaur hasiko dira motorrak berotzen. Amantalak Kalegoen plazara eramateko deia egin diete herritarrei, eta alderik alde zintzilikatuko dituzte. Azaroaren 30erako, bestalde, manifestazioa iragarri dute, baina ekintza gehiago prestatzeko asmoa daukate.**

**E**uskal Herriko mugimendu feministak martxoaren 8an eman zuten albistea: greba feminista orokorra egingo dute azaroaren 30ean, eta Euskal Herriko kaleak hartuko dituzte. Bizitzak erdigunera ekarriko dituen zaintza eskubide kolektiboa aldarrikatu eta zaintza sistema publiko eta komunitario bat martxan jartzea eskatuko diete erakundeei. Herrietan asanbladak eta greba batzordeak martxan dira jada egun hori antolatzeko, eta Elgoibarren ere sortu dute lantaldea. Narrutsik talde feministak hartu du aurrea gai honetan, eta udaberritik aritu da lanean eskualdeko beste talde feminista batzuekin batera. Greba eguna gerturatu ahala, hainbat norbanako ere batu zaizkie taldera, eta greba batzordea sortu dute orain Elgoibarren. Enara Castrillejo eta Nerea Gurrutxaga Narrutsik taldeko kideek eman dituzte greba feministaren inguruko azalpenak: "Zaintza jarri dute erdigunean berriz ere, zaintzak denori eragiten digulako, eta grebaren helburua da zaintza sistema eraldatzea". Mugimendu feministak adierazi du zaintza esparru osoa problematizatzea eta berrantolatzea izango dela helburua, eta zaintzak familiaren gain eta pribatizaturik

egoteari utz diezaiola exijituko dute. ELA, LAB, Steilas, ESK, EHNE, Etxalde eta CGT sindikatuek babestu dute greba feminista orokorra, eta herritar guztiak daude deituta, "baita gizonezkoak ere". Narrutsikekoek argi dute gizonezkoek ere paper garrantzitsua dutela azaroaren 30eko greban, eta modu desberdinetan parte hartu dezaketela. "Mobilizazioetara joan daitezke, eta bestela, zaintza lanetan dabiltzan hainbat eta hainbat emakumeren lana egin dezakete, emakume horiek mobilizazioetan parte hartzeko aukera izan dezaten". Izan ere, zaintza ezin da une batez ere alboratu, eta hain justu ere zaintza lanetan diharduten emakumezkoek izango dute zailtasun handiena azaroaren 30ean greba egiteko: "Zaintza lanak feminizatuta daude, emakumezkoen gain jausten dira oraindik ume zein nagusien zaintza ardurak, eta askok egoera oso prekarioan egiten dute lan". Zaintza krisian dago: "Instituzioek beraien arduran hartu behar dute zaintza".

Azaroaren 30a zehaztu dute egutegian, baina greba feminista egun hori baino gehiago izango da, eta aurrerantzean ere lanean jarraitu beharra dagoela adierazi dute: "Greba feminista ez da azaroaren 30ean bukatuko. Urte osoan ari gara lanean, eta gero ere lanean segituko dugu, emakume sareak sortzen, elkar-ezagutzen eta elkar-laguntzen". 2018tik ari da mugimendu feminista zaintza erdigunean jarri behar dela aldarrikatuz eta Narrutsiketik uste dute gauza batzuk lortu direla ordutik: "Presioa egin da eta zaintza arloko sektore feminizatuak batuta aritu dira borrokan. Bizkaiko egoitzetako langileek lortu zuten akordioa eta Gipuzkoan ere lanean ari dira. Feminismoak arazo hori bistaratu egin du eta emakumeak ahaldundu ditu borrokarako". Argi dutena da egungo zaintza sistema hau ez dela sostengatzen, eta aldatu egin behar dela.

### **Gaur, amantalak plazara**

Gaur arratsaldean hasiko dira grebarako motorrak berotzen Elgoibarren, eta horretarako ekitaldia antolatu du greba batzordeak. Herritarrei eskatu diete amantalak plazara eramateko, eta alde batetik bestera zintzilikatuko

## ***"Zaintza esparru osoa problematizatzea eta berrantolatzea izango da azaroaren 30eko greba feminista orokorraren helburu nagusia"***

dituzte han. "Gai hauek askotan etxe barruan geratzen dira, eta kalera atera nahi ditugu". Umeekin eskulanak egingo dituzte, amantalak margotu eta apainduko dituzte, "atentzioa deitzeko". 17:00etan hasiko da ekitaldia. Horrez gain, grebari buruzko informazioa ere banatuko dute.

### **Greba batzordea herritarrei irekia**

Greba batzordean Narrutsikeko kideak eta hainbat herritar daude, baina taldea irekia dago interesa duen ororentzat. Eguenetan biltzen dira sotoan, arratsaldean. Greba hurbildu ahala gero eta emakume gehiago biltzea nahiko lukete, iritzi eta ideia gehiago edukitzeko. Interesatuak [narrutsikfeministak@gmail.com](mailto:narrutsikfeministak@gmail.com) helbidera idatzi dezakete, edo Narrutsik taldeak sare sozialetan dituen kanalen bidez ere batu daitezke taldera.

### **Azaroak 30, mobilizazio eguna**

Azaroaren 30ean mobilizazioak egingo dituzte Euskal Herriko hiriburuetan eta herrietan, baita Elgoibarren ere. Narrutsikek egun osoko mobilizazioak aurreikusi ditu. "Oraindik ez daukagu dena lotuta, baina goizean goizetik egongo dira mobilizazioak". Badakite egun horretan zaintzan diharduten emakume askok ezingo dutela grebarik egin, eta emakume horiei ere beren espazioa eman nahi diete: "Oraindik ez dakigu zer eta nola egingo dugun, baina etxeko balkoietan zerbait zintzilikatuko dugu, edo kazeroladaren bat... Elkertasun keinuren bat eduki nahi dugu emakume horiekin". Narrutsik taldeko kideek eta greba batzordekoek herritar guztiei dei egiten diete azaroaren 30ean greba egin eta mobilizazioetan parte hartzeko.



Santa Ana ermita

## ■ Begi guztiak Santa Anan jarrita

✍ Aina Argoitia / 📷 Ion Urbiet

**Santa Ana ermita konpontzeko ahalegina egin nahi du Mendaroko Udalak, hondoa jo aurretik. 1982an konpondu zuten azkenekoz Santa Ana, auzolanean, herriko gainerako ermitak konpondu zituzten moduan. 1986az geroztik, Donostiako Gotzaindegiaren jabetzakoa dira Santa Ana ermita eta berau dagoen orubea, orduan inmatriculatu zituelako Elizak, baina ondarea zaintzeko premia ikusita, batzar batera deitu ditu Udalak herritarrek azaroaren 15erako. Udaletxean izango da batzarra, 19:00etan. Kale-inkesta: [barren.eus](http://barren.eus).**

Santa Anako ermita ez dago egoera onean. Erretila berria hartuko luke, korua hondoratuta dauka eta arrakalaren bat ageri du horman. Eta hala dagoenetik, mendararren urtean behingo bisitarik ere ez du jasotzen. Uztailaren 26a izan dute beti harako eguna Mendaron, Santa Ana eguna, herriko zaindariaren omenezkoa, baina badira bi urte santanetan ere mezarik ematen ez dutena han, segurtasunaren izenean hala hobetsi zutelako [2009an, 2016an eta 2019an ere ez zuten han jairik egin, eguraldi txarragatik lehenengo bietan eta luizi bat izan zelako 2019an]. Azkeneko konponketak 1982. urtean egin zituzten ermitan, auzolanean, Anjel Bazterretxea [Mutriku, 1936-Mendaro, 2019] abade zela. Herriak beretzat zeukan sasoi hartan Santa Ana, hein batean 1986ra arte ez delako hari buruzko aipamenik agertzen Jabetza

Erregistroan. 1986ko irailaren 4an inmatriculatu edo jarri zuen bere izenean Elizak, Jose Maria Setien gotzain zen garaian, eta gaur egun, Donostiako Gotzaindegiarena dira eraikina eta 754 metro koadroko orubea.

Leku estrategikoan dago eraikia Santa Ana ermita, Kilimon haranerako sarreran, haitz baten gainean, eta horrek pentsarazi izan du jatorrian -XV.mendean- defentsarako dorre izan zitekeela. Geroagora ere estrategikotzat jo izan dute Santa Ana, beste zenbait interesengatik. Mertxe Olazabal mendarorrek kontatutakoa da, esaterako, 1954an, Saka harrobikoek hura erosteko saiakera egin zutela harrobia bera handitzeko, baina mendarorrek ezetza eman zutela, ez eztabaidatu barik: "Gure aitak [Inazio Olazabal *txoperranekua*] kontaktzen zuen batzarra egin zutela orduan Garagartzako parrokiaren zer

egin erabakitzeko. Esaten zuen kanterakoen eskaintza tentagarri egin zitzaieela askori eta sutu zela bera zenbait herrikiderekin Garagartzako parrokiari egin zuten bilera hartan. 'Gure arbasoei hainbeste lan kostatu zitzaiena merke saltzen dugu gero guk!' esan ei zuen batzarrean, eta nolabait konbentzitu zituen gainerakoak, azkenean, ezetza eman zutelako". Baina halako proposamenik egin gabe egin zuen bere Elizak 1986an, beste leku askotan beste zientoka eraikinekin eta bestelako ondasunekin egin duen antzera, inmatrikulazioaren bidez.

### Elizaren pribilegioak

Frankismo garaian zabaldu zitzaion Elizari horretarako aukera, 1946an onartu zuten Hipoteka Legeari esker [2015ean kendu zuten, Mariano Rajoy Espainiako gobernuburu zela]. Lege haren bitartez Eliza katolikoa instituzio publikoen pare jarri zuten, eta horrek bide eman zien gotzainei beren buruari egindako ziurtagiri batekin ondasuna Eliza katolikoaren izenean jartzeko, hutsa ordainduta: 30 bat euro tramitazio gastuengatik. Pribilegio batez baliatu zen Eliza ondasunak bere egiteko, baina kontrara, bidegabekeria salatzen ausartzen zenak ez zuen batere erraza, frogak aurkeztu beharra zeuzkalako ondarea Elizarena ez zela egiaztatzeko.

Hipoteka lege hark bazuen muga bat, hala ere: Elizak lursailak, etxeak eta era horretakoak inmatrikula zitzaieken, baina ez elizak, ermitak edo gurtzarako eraikinak. 1998an kendu zuten muga hori, Espainiako Gobernuko presidente Jose Maria Aznar zela. Aznarrek sinatutako dekretu batek ematen zuen lege zirrikitua baliatu zuten horretarako. Hala ere, ordurako Gipuzkoan asmatua zuen Elizak beste bide bat gurtza tokiak bere izenean jartzeko: eliza edo ermita zegoen lursaila edo orubea inmatrikulatzeko, han zer zegoen zehaztuta. Modu horretan bere egindakoak ditu Gipuzkoan Elizak ermita eta eliza asko. Eta erraztasun horiek guztiak baliatu zituen Mendaron ere 1986an Garagartzako parrokiari, Trinitate eta Santa Ana ermitak, eta hiru lursail bere egiteko. Hala ageri da 2015eko ekainean Eusko Legebiltzarrean EAJK, EHBilduk eta PSE-EEk eskatuta Eusko Jaurlaritzak 2016an egindako txosten juridikoan.

Eta hori dena gogoan hartuta, Santa Anarekin zer egin aztertzen hasia da Mendaroko Udala. Konpondu beharra ikusten du, baina jabetza Elizak duela jakinda, lehenengo harekin egin dute hartuemana. "Mendaroko elizako arduradunekin Santa Ana ikustera joan eta herriari elizako diru-kontuak daramatzan pertsonarekin bildu ondoren, Jon Elizalde Donostiako Gotzaindegiko ondare arduradunarekin izan nintzen berbetan, jabetza euren delako. Kontatu nion hemen zer geneukan, baina ez zitzaion ezaguna kontua. Agindu zidan hilabete bat edo bi barrurako egingo zutela Santa Anaren inguruko txostena. Proiektu bat idatzi beharko litzateke hemen gero beste gauza guztietarako moduan, eta ondoren, ikusi nola finantzatu behar den hori, dirua izango delako hemen arazoa", azaldu du Enez Ezenarro alkatea. Mari Jose Telleria Gipuzkoako Foru Aldundiko Kulturako zuzendari nagusiarekin ere aritu da gaiaren inguruan hizketan alkatea, garai batean Trinitate konpontzeko egin zen obra finantzatzeko Aldundiak izan zuen parte-hartzea ikusita. Aldundiak gotzaindegiarekin hitzarmena egina du babes kulturalerako eraikinak zaharberritzeko, eta Kultura Ondarearen 1997ko urriaren 30eko legeak Trinitate basilizari besteko babesa aitortzen dio Santa Ana ermitari: Balizko Arkeologia Guneen Aitorpenari dagokiona.

2008an berriro zuten Trinitate. Orduko apunteen arabera, 334.100 bat euroko kostua izan zuen obra hark eta %70 (160.000 euro) Gipuzkoako Foru Aldundiak jarri zuen. Gainerako %30a Gotzaindegiak, Mendaroko Udalak eta Mendaroko herriak jarri zuten. 36.000 euro jarri zituen Gotzaindegiak, 32.000 euro Udalak eta 34.240 euro Mendaroko herriak [Azken zati horren barruan sartzen dira Garagartzako parrokiak (6.000), Kutxak (6.000), Anjel Bazterretxea orduko parrokiak (19.905) eta herriko familia batek (39.810) egindako diru-erakpenak].

Ate guztiak jo ditu Udalak, eta herritarrengana ere jo nahi du orain. Horretarako antolatuta du batzarra ere eta interesa duen edonork hartu ahal izango du parte. Trinitate basilizari konpontzeko bere garaian erabili zen formula eta egon daitezkeen besteak aztertu nahi ditu Udalak herritarrekin batera ■

# JASONE OSORO

Idazlea

✍️ Ainara Argoitia / 🗣️ Asier Orbea

'Arrakasta' saiakera argitaratu du Jasone Osorok (Elgoibar, 1971), Elkar argitaletxearekin. Urriaren 31n aurkeztu zuen ofizialki, Donostian, eta eguaztenean bigarren aurkezpen bat egin zuen Elgoibarren, Pitxintxun, Maite Rementeria lagunaren eskutik. Hiztegiek eta filosofoek arrakastaz ematen dituzten definizioetatik abiatuta idatzi du liburua Osorok, arrakasta lortu duten hamaika laguni egindako elkarrizketak, bere oroitzapen eta esperientzia propioak eta beste zenbait autoreren aipuak bilduta. Joxemari Agirretxe *Porrotx* pailazoa, Eneko Atxa sukaldaria, Izaro Andres musikaria, Harkaitz Cano idazlea, Eva Domingo kazetaria, Maider Egues kazetaria, Jon Garaño zine-zuzendaria, Aizpea Goenaga antzerkilaria, Markel Irizar txirridularia, Itziar Ituño aktorea eta Gorka Urbizu musikaria dira gaian sakontzeko elkarrizketatu dituen lagunak.

**'Zer da arrakasta?' galderarekin hasi duzu lehenengo saiakera liburua duzuna. Non du abiapuntua?**

*Festa* (Elkar, 2021) argitaratu nuenerako, hasita nengoen pare bat ideia inguruan lanean, baina konturatu nintzen bi ideia haiek ez nindutela gehiegi betetzen. Sortzaileok aldizka izan ohi ditugun sorkuntza krisi horietako bat sentitu nuen, eta erabaki nuen gai hori lantzea, beste sortzaile batzuei galdetuta nola kudeatzen dituzten halakoak, zer egiten duten korapilo horretatik irteteko. Eta horretan ari nintzela konturatu nintzen beste hitz bat gailentzen zela sorkuntzaren eta krisiaren gainera: arrakasta. Erabaki nuen hori izango nuela lanerako gaia.

**Nola osatu zenuen elkarrizketatuen zerrrenda?**

Maider Egues kazetari eta lagun minarengana jo nuen lehenengo, buruan nerabilen gaia egoki ikusten ote zuen jakiteko, eta hala irudituz gero, liburuan parte hartzera gonbidatzeko. Kezka neukan nola hartuko ote zuen jendeak arrakastaz idatzi nahi nuela esanez joaten nintzaienean. Beldur nintzen uxatuko ote nituen denak,



***“Norbere buruarekin gustura egotea da niretzat arrakasta”***

lotsagatik, umiltasunagatik, segurtasun faltagatik edo dena delakoagatik, baduelako arrakasta hitzak halako fama txar bat ere. Jabetuta nengoen kosta egiten zaigula arrakastaz hitz egitea, kosta egiten zaigula arrakasta ezagutu dugula

onartzea, eta are gehiago, bilatu nahi dugula esatea. Maiderrri gustatu egin zitzaion gaia eta baietza eman zidan. Markel Irizarrengana jo nuen gero, bikotekidearen laguna delako eta gutxi-asko banuelako haren berri. Markelek ere baietza eman zidan, eta ekin nion taldea osatzeari. Nire ikuspuntutik arrakasta ezagutu duten eta gaiaren inguruan diskurtso bat izan zezaketen hamaika lagun lotu nituen. Nik uste baino errazagoa izan zen. Ondoren, banaka batu nintzen eurekin. Bizitzaz hitz egin nuen haiekin, landu nahi nituen gaien inguruan aurrez bidali nien gidoi baten inguruan, eta garbi lagata arrakastari buruzko liburuia idatzi nahi nuela eta ez elkarrizketa liburu bat. Tertulian aritu ginen, konfiantzazko giroan; hala iruditzen zait behintzat, lortu genuela giro hori. Ez nuen apunte bakar bat ere hartu eta saiatu nintzen grabagailuari ere gehiegi erreparatu ez ziezaioten.

**Liburuan, arrakastari buruzko definizio gehiago ere topa daitezke, baina ondoriotan honela diozu: "Izozmendi baten tontorrean idatzitako hitza da, aldaera ezberdinak dituen, ertzez betea dagoena, argi-ilunez, labainkorra eta itsaskorra, ispilua, amildegia. Horixe da arrakasta, ikusten dena baino askoz ozeano zabalagoa, bere baitan hamaika hitz batzen dituen". Liburuia idazten hasi zinenean, zenbateraino zeunden gertu ala urrun definiziotik?**

Uste dut aurrez sekula ez nintzela jarri pentsatzen zer zen arrakasta, eta horregatik, niretzat ere bidai bat izan da hau. Puntu batetik abiatu nintzen, baina bata eta besteak kontatutakotik eta han eta hemen irakurritakotik, ni neu asebeteko nauen definizio bat osatzen saiatu naiz. Jabetu naiz bizitzako etaparen, adinaren eta unean-uneko helburu eta ametsen arabera aldatuz doala arrakasta, eta lortu arren, ez dela betirako. Etengabe landu behar den zerbaite da. Ez dut uste arrakasta lortzeko formula magikorik dagoenik, baina bai hiru zutabe ezinbestekok eusten dutela: autoezagutzak, aliantzek eta borondateak. Arrakasta ezagutzeko garrantzitsua da jakitea zeintzuk diren gure desioak eta ametsak, jakitea zerk ilusionatzen gaituen eta zerk ematen digun min, eta jakitea, baita ere, zeintzuk diren gure gaitasunak eta mugak. Erreferenteak izatea eta inguruko babesa sentitzea ere garrantzitsua da, inportantea zaigulako esaten diguten hori, guri

*"Ez dut uste arrakasta lortzeko formula magikorik dagoenik, baina bai hiru zutabek eusten dutela: autoezagutzak, aliantzek eta borondateak"*

buruzko diskurtsoa eraikitzeko. Eta borondatea da hirugarren zutabea; daukagun horrekin, ekitea erabakitzea edo ez. Kanpoko arrakasta eta barrukoa bereizten ditut nik bestalde. Kanpoko da kuantifikatu daitekeena, izan zenbat liburu saldu dituzun edo beste edozer, eta barrukoa da norbere ongizateari lotutakoa. Norbere buruarekin gustura egotea da niretzat arrakasta, eta beharbada, horixe da hemen lortzen zailena.

**"Zerrendak egin eta zerrendatik asmoak ezabatzea ere bada lorpen bat. Ezabatzea helburuak bete dituzulako, eta lortu ez arren, saiatu zarelako". Gustura gelditu al zara emaitzarekin?**

Oso pozik nago. Batetik, nire lehenengo saiakera delako eta erronka bat izan delako idaztea, eta bestetik, protagonistekin elkartzeak balio izan didalako ikusteko beste batzuek ere izan dituztela nik bizi izan ditudan zauriak, minak edo segurtasun faltak, eta balio izan didalako ikusteko ez nagoela bakarrik. Liburu hau idazten hasi nintzenean baino lasaiago nago orain nire izanarekin. Horrekin ez dut esan nahi liburu hau salbazioa izan denik niretzat, baina bai lagungarria izan zaidala besteen barne-mundu hori ezagutzeko nik neuk nire burua hobeto ezagutzeko.

**Zeure buruaz diozu: 'Nire hartzaroa amama Juanitaren etxeko ezkaratza da. Eskailera maldatsua. Iluntasuna. Eta ni txiki. Beldurti. Nire baitara bildua' edo 'Talenturik ez duzu, Jasone. Ez eta talderik ere. Bakarrik zaude sistema literarioan. Bai, satelitea zara'. Proiektatzen duzun irudiaz oso bestelako bat jaso dut liburuan.**

Bai, izan daiteke, eta esango nuke hori bera gertatu zaidala niri elkarriketatuekin. Irudi bat nuen haiez eta konturatu naiz haien barruan ere badagoela nire barruan dagoen pertsona zaurgarri hori. Horrek sekulako lasaitua eman dit. Nire buruaz esango dizut egoera batzuetan eta une batzuetan seguru sentitzen naizela, baina autoestima ere, arrakasta bezala, aldakorra dela.

27 urterekin munduratu nintzen literaturan, *Tentazioak* liburuarekin, oso idazle emakumezko gutxi zeuden garaian. Liburuak oihartzun handia izan zuen, hasi nintzen han eta hemen agertzen, eta oihartzun hark min egin zuen askoren belarrietan. Batzuek ondo hartu ninduten, baina, kritikatu egin ninduten, eta nolabait sinestarazi zidaten zorte kontua izan zela nirea, ez besterik. Eta horri gehitzen badiogu nik baneukala haurtzarotik zauri bat baztertua izatearena eta sentitzen nintzela bakarrik sistema literarioan, bada horixe, sentitu nuela mundu honetan ez neukala lekurik, bilatu ere egiten ez nuen arren.

Ikasi dut nire buruan sinesten, baina bai, proiektatzen dudana irudia askotan ez dator bat ni naizen horrekin; nire defentsa mekanismo bat da hori ziurrenik. Esango nuke bietatik dudala, proiektatzen dudana iruditik eta liburuan agertzen den Jasone zaugarriago horretatik, eta iruditzen zait proiektatzen dudana hori naizela, hein batean, hori ere izan naizelako. Literaturak sekulako baliabideak eman dizkit nitasuna eraikitze eta indartzeko. Liburuan ere badiot fikzioan topatu ditudala sarri nire idoloak; fikziozko emakumezko eta gizezkoak baino errealagoak eta autentikoagoak ez ditudala topatu bizitzan.

**Saiakera liburua da eta helduei zuzendutakoa dela pentsa dezake norbaitek, baina nago hau lagungarri gerta dakiekela gazteagoei ere. Ala?**

Bai, zalantzarik gabe. Saiakera da eta horrek ekar dezake jende batek pentsatzea zaila izango zaiola ulertzeko, baina ez. Uste dut edozeinentzako moduko liburua dela, baina badela, bai, bereziki gazteek ere irakurtzekoa, aukera izango dutelako beraiantzat eredu edo ispilu diren pertsonak ezagutzeko eta jakiteko haiek nola bizi izan duten beren haurtzaroa, nola bizi izan dituzten beren minak, zauriak, eta baita arrakasta ere. Iruditzen zait 16-17 urteko batentzat lagungarri izan daitekeela bere burua hobeto ezagutzeko eta jakiteko nor izatera iritsi nahi duen, bai eta biderako pista batzuk lortzeko ere. Niri, adibidez, gauza hauek guztiak kontatzeak balio izan dit konturatzeko urteetan sentitu izan dudana ez dela beharbada horrenbesterrainokoa izan. Pentsatzera iritsi naiz beharbada bi-hiru ahots zirela nik bere garaian entzun nituenak, baina neurritz kanpoko oihartzuna izan zutela nire barruan, ziurrenik baneuzkalako alde aurretik zauri batzuk. Baina

*"Literaturak sekulako baliabideak eman dizkit nitasuna eraiki eta indartzeko. Liburuan ere badiot fikziozko emakumezko eta gizezkoak baino errealagoak ez ditudala topatu bizitzan"*

horrek guztiak ere badu bere alde ona: min hori sentitu arren, aurrera egin dudala eta beharbada nik neuk uste baino indartsuago naizela.

**Nekearen gizartea aipatzen duzu liburuan. Denok ere hain barneratuta daukagun 'yes, we can' leloa, sarri gu geu bihurtzen gaituena geure esplotatzaile. Hori ere baduelako sarri arrakastaz dugun irudiak bere baitan.**

Garbi dago mundu hiper azeleratuan bizi garela eta horrek sekulako zarata sortzen duela gure barruan. Autoezagutzarako, baina, ezinbestekoa da kanpoko zarata alboratzea eta gure barruko musika entzutea, eta horretarako behar-beharrezkoa dugu isiltasuna. Eta noski, isiltasun hori lortzeko derrigorra dugu gelditzea ere. Baina, gaur egun, justu bestea sustatzen da: produkzioa, akzioa. 'Zaude uneoro konektatuta!' esaten zaigu informatuta egoteko, baina ez gara konturatzen ezer ez dakigula, ez besteez eta are gutxiago norberari buruz.

**Apal bat, bi granada, eta horma hori bat. Zer esan nahi du azalak?**

Ez dauka berez arrakastarekin zerikusirik, baina sinbolizatzen du liburuan datorrena eta azal bati eskatzen diodan ezaugarriak ere baditu. Maider Eguesena da, benetan ederra da, eta Clara Peetersi egiten dio erreferentzia. Clara Peetersek bodegoiak pintatu zituen, XVII. mendean, emakumea izanik, beste aukerarik ez ziotelako utzi, baina jakin izan zuen sabaiak hausten eta arrakasta lortzen, bere margoetako elementu batzuetan autoerretatuak sartuta. Peetersek liburuan datorren guztia sinbolizatzen du: konturatzea zein den bere bere ametsa, onartzea baduela talentua horretarako eta borondatea izatea aurrera egiteko, sabaiak hautsita. Era berean, azaleko irudia oso lotua dago niretzat arrakasta den horrekin, bizitza etengabe hobetzen ari den artelan baten gisa hartzearekin, loratze batekin.



# Oldarraldi judizialari aurre egiteko bermeak eskatu dituzte Bilbon dozenaka milaka lagunek



**D**ozenaka mila lagun bildu ziren zapatuan Bilbon Euskalgintzaren Kontseiluak deitutako manifestazioan, euskararen eta hizkuntza eskubideen alde aldarri egiteko. *Oldarraldiaren aurrean, euskararekin bat, euskaraz bat* lelopean, milaka eta milaka euskaltzalek gaitzetsi zuten azkenaldiko "olatu euskarafobia" eta bermeak eskatu zituzten euskararentzat. Euskal Herri osoko jendea bildu zen manifestazioan, eta horietako askok euskalgintzako eragileek antolatutako autobusetan egin zuten Bilborako bidea. Elgoibarko Euskarak 365 Taldeak eta Mendaroko In Leike elkarteak antolatu zuten autobus zerbitzua Elgoibartik eta Mendarotik eta bi autobus bete zituzten jendez. Antolatzaileek jakinarazi dutenez 68 autobus iritsi ziren Bilbora, propio manifestaziorako.

Manifestazio buruan Euskalgintzaren Kontseilua osatzen duten eragileetako ordezkariak joan ziren, pankartari eusten, eta haien atzetik manifestaziori atxikimendua agertu zioten gainerako eragileetako ordezkariak. Eta guzti haien atzetik eta ondoan, milaka herritar. Hala, manifestazio burua udaletxe parera iritsi zenean azkenak Moyuara iristeko zeuden oraindik. Bukaerako ekitaldia Ruper Ordorikak hasi zuen, *Zaindu maite duzun hori* kantua abestuz, eta ondoren, Kontseiluko idazkari nagusi Idurre Eskisabelek hartu zuen hitza. Hizkuntza politikan "jauzi bat" emateko premia azpimarratu zuen Eskisabelek eta akordio soziopolitiko berri bat eskatu zuen euskararentzat. Hitzaldi osoa irakurtzeko: [kontseilua.eus](http://kontseilua.eus).

## Elgoibarren izan da 'Euskaraz barra barra' kanpainako Ihes Gela

Merkataritzan eta ostalaritzan euskaraz berba egiteko guneak identifikatzeko eta euskararen erabilera sustatzeko jarri dute abian *Euskaraz barra-barra* marka bateratua. Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak, eta Elgoibarren markaren zabalkundearen laguntzen ari zaizkie Udala, Elgoibarko Izarra Euskaltzaleen Topagunea, Aizu! ostalarien elkarte eta Txankakua merkatarien elkarte. Kanpaina horren barruan, Ihes gela ibiltaria sortu dute, kontsumitzailea erdigunean jarri eta estres linguistikoa murrizteko helburuarekin, eta barikuan iritsi zen Elgoibarrera autobusa, hiru egunerako. Bost laguneko txandetan sartu ahal izan ziren aurrez izena emandakoak eta intrigazko istorio baten murgildu ziren barruan guztiak.



## 'Emakume abeslariak' kontzertu didaktikoa emango dute Elgoibarren eta Mendaron



Pollo rosa antzerki konpainiak *Emakume abeslariak* kontzertu didaktikoa emango du domekan, hilak 12, Aita Agirre Kultur Kafean (12:30) eta azaroaren 18an (zapatua) Mendaron, San Agustin kulturgunean. Jugatx Mirasolain 2010az gerotik Donostiako Orfeoiko abeslaria dena eta Iñaki Santos piano jotzailea arituko dira oholtzan, eta historiako hainbat kantari emakumezkoren bertsiok kantatuko dituzte. Baina abesteaz gain, interpretatuko dituzten artisten obrari, bizitzari eta testuinguruari ere erreparatuko diote. Herri herri dabilta proiektu honekin Pollo rosakoak, bai eta ikastetxez ikastetxe ere. Emanaldiko azken partean, landu dituzten gaien inguruko eztabaida

ere sortu ohi dute. Azken batean feminismoari buruzko kontzertu didaktikoa da *Emakume abeslariak*, arte munduan historian zehar gertatu denari buruz hausnartzeko aukera bat. Izan ere, historian zehar, emakume artistak ezkutuan gelditu dira sarri eta haiek argitara ekartzeko asmoz sortu zuen Pollo rosa antzerki konpainiak proiektu hau, musika munduan arrakasta lortu duten emakumeek egin behar izan duten bidearen eta izan dituzten zailtasunen inguruan gogoeta egiteko.

---

### Herriko Antzokiari buruzko gogobetetze inkesta egingo du Udalak

Elgoibarko kultur programazioa aberasteko asmoz sortu du inkesta Elgoibarko Udalak eta azaroaren 6tik eskura dute herritarrek Udalaren webgunean ([www.elgoibar.eus](http://www.elgoibar.eus)) edo HAZ Herritarren Arreta Zerbitzuan (whatsappez eskatzeko aukera ere zabaldu dute). Azaroaren 20a izango dute herritarrek erantzuteko azken eguna eta Udaletik jakinarazi dute erantzun guztiak anonimoak eta konfidentzialak izango direla eta ez dutela inolako informazio

pertsonalik jasoko. Galdetegia paperean betetzen dutenek HAZ, Jubilatuen honako leku hauetan izango dute entregatzeko aukera: jubilatuen biltokian, Aita Agirre kulturgunean, Olaizaga kiroldegian edo I. Bereziartua Musika Eskola.

Inkesta betetzen duten guztien artean Txankakua Merkatarien Elkarteari atxikitako dendetan gastatzeko 80 euroko bono bat zozkatuko du Udalak.

---

### Adineko andren kontrako indarkeria matxista aztergai, Mendaron

*Mujeres mayores y violencia de género* izenburuko hitzaldia emango du Iratxe Herrero Zarate soziologo, gerontolo eta kriminologoak eta Y-Logika gabineteko zuzendariak Mendaron, azaroaren 24an, udaletxeko pleno aretoan, 19:00etan, Udalak antolatuta. Emakunderen beka bati esker adineko emakumeen kontrako indarkeria matxistari buruzko azterlana aurkeztu du aurtien Herrerok, Carlos Diaz de Argandoñarekin batera, eta txostenean jaso dute Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko 65 urtez gorako lau emakumetik bat indarkeria matxistaren biktima izan dela noizbait bere bizitzan. Hitzaldia gaztelaniaz izango da.



## Gaia sexu eraso bat duen 'Beita' websaila ikusi eta hari buruz solastuko dira Mendaron

Oñatiko Xup antzerki taldeak sortutako *Beita* websailaren emanaldia eta ondorengo solasaldia eta mokadua lotu dituzte biharko Mendaroko Udalak eta Gazte Asanbladakoekin lankidetzan (Gaztetxean, 18:00etan). Oñatiko zortzi gaztek eta arrasatear batek sortu zuten Xup antzerki taldea, eta beren bigarren lana da *Beita*. Beren aurreneko lanean, *Kontraizanak* izenekoan, gazteen kezkak eraman zituzten oholtzara, eta *Beitan* berriz, sexu eraso bat da gaia. Kuadrillako parranda batean kide batek beste bati eraso egiten dio, baina ez da ikusten nork. Eta erasoja jasan duenaren lagunik onena, Eki, gertatutakoa ikertzen saiatzen da, erasotzailea nor izan den argitzeko. Thriller



eran kontatu dute istorioa. Egiaren bila ari dela, hainbat sekreturen berri izango du Ekik, gainerako kideek eraso baten aurrean hartzen duten jarrera ere erakutsiko dute. Jokamolde horiek plazaratu eta salatzekeo helburuz sortutako lana da *Beita*: "Gure proiektua berezia dela esango genuke, sexu eraso baten aurrean ingurukoek bereganatzen dituzten jarrerak azaleratzen baititugu, askotan lantzen ez den ikuspuntua. Ezagutzen eta guk geuk bizitzen ditugun arazo, pentsaera, gatazka zein harremanak lantzen ditugu eta, garrantzitsua iruditzen zaigu gai guzti horiek ere gazteok jorratuak izatea".

### 'Anbotoko Mari' familia antzezlanaren emango dute Elgoibarren, domekan



Antzerkia, bideo-animazioa, interakzioa eta musika biltzen dituen antzezlan multimedia da Anbotoko Mari, 3 eta 10 urte bitarteko umeei zuzendutakoa. Logela multimedia produkzioak lana da eta domekan Elgoibarren emango dute, Herriko Antzokian, 16:30ean. Sarrerak salgai daude dagoeneko [herrikoantzokia.eus](http://herrikoantzokia.eus) webgunean, baina lehiatilan ere erosi ahal izango dira zapatuan, 18:15etik 20:45ak bitartean. Lagunekin haserretu eta Anbotora bakarrik abiatzen den mutiko bat da protagonista eta bidean Mari, Tartalo, iratxoak eta beste jeinu batzuk ezagutuko ditu.

### 'Itsatsita' musikala ikusteko aukera izango da gaur zortzi, Elgoibarren



*Itsatsita* musikala komikoaz gozatzeko aukera izango da Elgoibarren hilaren 17an, Herriko Antzokian (19:00etan). Patxi Barco zuzendutako musikala da *Itsatsita* eta Maria Redondo, Xanti Korkostegi, Ainhoa Aierbe eta Paul San Martin dira obrako antzezleak. Istorio komikoa dauka oinarrian: diskoteka baten iluntasun zaratsatu eta beroan elkar erakarritako sentituko dira bi gazte, eta alkoholak, erakarpak eta bazileak eragindako giroan sutuki enroilatuko dira komunean. Sexu-harremanak hasi eta halako batean konturatuko dira itsatsita gelditu direla, medikuek *penis captivum* deitzen dutena gertatu zaiela alegia, eta ospitalean amaituko dute. Sarrerak salgai daude [herrikoantzokia.eus](http://herrikoantzokia.eus) webgunean.

## IGONE MARIEZKURRENA

Kazetaria, antropologoa, abenturazalea

✍️ Ainhoa Andonegi

Udazkeneko mendi emanaldiak antolatu ditu Morkaiko mendizale elkarteak, eta Igone Mariezkurrena (Pasai Donibane, 1985) izan da lehenengo hizlaria. Kazetari eta antropologoa izateaz gain, abenturazalea ere bada, eta oraingoan Islandiako Westfjords eskualdera egindako bidaia izan du hizpide. 2022ko udaberrian egin zuen bidaia, bizikletaz. Islandia zeharkatzen duen Ring Road errepidea ez da ingurune horretara iristen, eta ondorioz, ez da turistarik iristen hara. Ingurune natural eta basatia da, eta are gehiago udaberrian. Eguaztenean eman zuen bidaia horren berri Kultur Etxean Mariezkurrenak. Bigarren saioa datorren astean izango da, azaroaren 15ean. Julio Villar eta Ibon Gaztañazpi etorriko dira, Villarrek mendian eta itsasoan bitzakoak azaltzera.



*“Bizikletak ate eta bihotz pila bat zabaltzen dizkizu, zoazen tokira zoazela”*

**Islandiako Westfjords eskualdera egindako bidaia izan duzu hizpide Morkaikoren mendi emanaldien barruan. Zer dela eta aukeratu zenuen helmuga hori?**

Islandiarrek beraien herrialdean beraientzat gorde duten altxorra da Westfjords eskualdea. Islandiak turista pila bat jasotzen ditu urtero, baina ipar mendebaldeko eskualde hau, momentuz, turista uholde horretatik libre dago. Islandiara bidaiatzeko modurik ohikoena furgonetaz edo autokarabanaz izaten da, baina ibilgailu horiek alokatzen dituzten enpresek debekatu egiten dute asfaltatu gabeko errepideetan ibiltzea, eta Westfjords eskualdean errepideen erdia baino gutxiago daude asfaltatuta. Islandia zeharkatzen duen Ring Road errepide nagusia ez da hara iristen, eta horrek turista asko uxatzen ditu. Askorentzat Europako azken bazter basatia da, eta islandiar askok udako oporrez gozatzen duten lekua.

**Nola prestatu zenuen bidaia?**

*Bikepacking.com* webgunearen bidez izan nuen bidaia honen berri. Webgune horretan

jasotzen dira munduan zehar bizikletaz egin daitezkeen ibilbideak, eta Chris Birkard izeneko tipo batek zeukan bidaia hau publikatuta. Berak 2021eko udan egin zuen bidaia, eta udan eskualde horretan badira kanping eta ostatu batzuk lotarako eta jateko aukera eskaintzen dutenak. Hortaz, tipo hark egin zuen bidaia lotarako eta jateko beharrezkoa zen guztia gainean eraman beharrik izan gabe, eta klima ere hobea izan zuen. Nik, aldiz, udaberrian egin nuen, baina klima negukoa zen oraindik, eta ez nuen inolako azpiegiturarik aurkitu zabalik. Autosufizientzia eran joan nintzen, behar nuen guztia gainean eramanda. Bidaia hura izan zen oinarria, baina nire erara moldatu nuen. Hiru aste pasatxo egin nituen han, eta 1.200 kilometrotik gora egin nituen bizikletaz. Ez naiz txirrindularia, ez nauzu hemengo mendateetan gora eta behera ikusiko bizikletaz; ez zait gustatzen trafikoa handia dagoen leketan bizikletaz ibiltzea, baina bai, iruditzen zait bizikleta dela bidaiatzeko modurik onena. Bizikletak zabaltzen ditu ate eta bihotz pila bat,

zoazen lekura zoazela. Ez da gauza bera urruneko herrixka batera motoz, ondo jantzita eta zarata eginez iristea, edo iristea bizikletaz, nekatuta eta normalean zikin. Jendeak berehala enpatizatzen du modu horretan ikusten dituen bidaiariekin. Gustatzen zait ezagutzen dudan horretatik aldentzea, eta bizikleta da modu bat zoazen leku hori zure azalean esperimintatzeko. Islandiako esperientzia aspektu horretatik desberdina izan da, aukeratu nuen datagatik ez zebilelako inor ingurune hartan. Ikusten nituen apurrek esaten zidaten goizegi joan nintzela. Bidaia bakartia izan zen, barrura begirakoa eta banekienez horrela izango zela, horretarako prestatu nintzen.

### **Bizikletaz eta bakarrik joan zinen. Abenturazalea eta ausarta izan zinen.**

Bizikleta bidaiekin engantxatuta nago, asko gustatzen zaizkit, oso libre sentitzen naizelako. Bizikletaz eta autosufizientzia eran bidaiatzean

*"Bidaia bakartia izan zen, barrura begirakoa, eta horretarako prestatuta joan nintzen"*

aktibatzen dira eguneroko bizitzan lo izaten ditugun mekanismoak, eta horri esker ahaztu egiten dituen hemengo kaka asko. Aitortzen dut, dena den, bidaia mota hau egiteko inkontzientzia puntu bat beharrezkoa dela. Hasiz gero arriskuak banan-banan analizatzen, ez zoaz. Niretzako ariketa oso liberatzailea izan da bidaia hau egitea. Joan aurretik dokumentazio lan handia egin nuen, asko irakurri nuen, eta nire burua leku hartan proiektatu nuen, suertatu zitezkeen arazoei aurre hartzeko.

### **Topatu al zenuen espero zenuena?**

Natura basatia eta bakardadeaz gozatzeko



pribilegioa topatu nituen. Horri buruz ere hausnartu dut azkenaldian, gero eta zailagoa delako nonbaitera joan eta inor ez aurkitzea. Pandemia ostean, jendea dabil toki guztietan, eta banekien bidaia honetan hori izango nuela. Pasatu nuen hotza eta bidaiaren gogortasuna izan zen pribilegio horren bidesaria, baina zorionez ez nuen nire burua une batean ere arriskuan ikusi. Telefonoan konexio ona neukan uneoro, egunero begiratzeko nuen eguraldi iragarpena, errepideen egoera, lotarako leku egokiak bilatu nituen... Han oso aldakorra da eguraldia, eta oso ingurune haizetsua da. Haizerik gabeko txokoak bilatzen nituen kanping denda jartzeko, gauez sentsazio termikoa asko jaisten zelako haizearen ondorioz. Jatekoa ezin izan nuen hilabete osokoa gainean eraman, baina banekien gasolindegia zabalik egongo zirela. Ez daude asko, baina oso ondo identifikatuta eraman nituen, batez ere ibilbidearen amaiera aldera aurkituko nituenak. Oso ondo hartu ninduten; topatu nuen jende apurra oso jatorra izan zen. Hiriburuan ez ziren oso adeitsuak izan, turistez nazkatuta daude han. Bizikletan bidaiatzera ohituta dagoenarentzat bidaia oso gomendagarria da hau, eta bizikletaz bidaiatzera animatu nahi nuke jendea. Pandemia aurretik Txinara egin nuen beste bidai bat bizikletaz, eta han 1.700 kilometrotik gora egin nituen.

### **Nabarmentzeko bitxikeriaren bat?**

Euskalduna nintzela esatean bi motako erreakzioak jaso nituen. Batetik, *whaler* esaten zidaten, baleazalea. Eta beste batzuek *killer* esaten zidaten, hiltzailea. Itxura denez, baleak

## ***"Pakistani buruzko begirada soziala landu dut nire proiektu berrian, eta 2024an hasiko naiz lan hori zabaltzen"***

arrantzatzera joaten zirenean, XVII. mende inguruan, sekulako liskarrak izaten zituzten euskaldunek bertakoekin, eta Westfjords-eko agintariek lege bat onartu zuten inolako zigorririk gabe euskaldunak hiltzea baimentzen zuena. Lege hori deuseztatzea ahaztu zitzaizen eta 2015era arte egon zen indarrean.

### **Nora izango da hurrengo abentura?**

Badauzkat ideia batzuk, baina agian pixkat superstiziosoak edo izango naiz, baina ez zait gustatzen kontatzea dena lotuta izan arte. Baina eskuartean badaukat beste proiektu bat, fotokazetaritzan oinarritzen dena. Pakistani buruzko begirada soziala landu dut nire lan berrian, eta 2024an hasiko naiz lan hori zabaltzen. Lau aldiz izan naiz Pakistanen eta hainbat historia eta errealitate dokumentatu ditut. Klima aldaketarekin, urarekin, garapenarekin eta emakumearekin dute zerikusia. Indus ibaia hartu dut hari modura. Himalaian jaio eta Karachin itsasoratzen da, eta iparraldetik hegoaldera zeharkatzen du herrialdea. Euskal Herriko mendizaleek badute lotura Pakistanekin, baina herrialdeari buruz ez dakigu gauza askorik, eta zor hori kitatzeko asmoz egin dut erradiografia sozial hau.



## Skate parkearen bosgarren urteurren jaia antolatu dute azaroaren 17rako



2018ko azaroaren 17an inauguratu zuten Basarten dagoen skate parkea, eta Elgoibarko Udalak bosgarren urteurrenoko jaia antolatu du gaur zortzirik, azaroaren 17rako. Hasteko, skate erakustaldia emango dute goi mailako emakumezko skaterrek: Naia Laso, Veronica Steigner, Maria Eloseg, Alexis Navia eta Erika Caballerok, 16:30etik 17:30era egingo duten saioan. Naia Lasoren izena nabarmendu behar da, Bermeoko

skaterrak bosgarren amaitu baitu Parkeko Munduko Txapelketan, eta gertu du datorren urtean Parisen jokatzekoak diren Olinpiar Jokoetarako plaza. Erakustaldiaren ostean hasiko da hastapen tailerra. Ipar Surf & Skate Eskolakoek emango dute kirol hau probatu nahi dutenentzako ikastaroa. 18:30etik aurrera hasiko da heritarrentzako saio librea. Jaiari DJa, zozketak eta janaria salduko duen foodtruck edo furgoneta bat ere izango dira.



### Urrezko domina eskuratu du Andde Elizburuk distantzia luzeko Espainiako Rollerski txapelketan

ETuixent haranean, Lleidan, jokatu zuten domekan distantzia luzeko Espainiako Rollerski Txapelketa, eta Andde Elizburu izan zen azkarrena bere kategorian. Ipar Irrintzi iraupen-eski taldeko kidea den elgoibartarra 14 urtez azpikoen kategorian lehiatu zen Lleidan, eta urrezko domina eskuratu zuen. Nagusien mailan kirolari nafarrak nabarmendu ziren: Iruñeko Irrintzi taldeko Irati Cuadrado, emakumezkoetan, eta Lander Martin, gizonezkoetan. Aurreko asteburuan, berriz, Euskadiko eta Nafarroako Rollerski txapelketan lehiatu zen Andde Elizburu, Iruñean, Sadar inguruetan. Sprint erako txapelketa izan zen, eta hor ere lehen postua eskuratu zuen.

## Hodei Ezpeletak bigarren egin du Euskal Herriko Aizkolari Txapelketan




🏆 Iñaki Porto

**E**uskal Herriko Aizkolari Txapelketaren finala jokatu zuten azaroaren 1ean Iruñeko Nafarroa Arenan, eta Iker Vicente otsagabiarrak jantzi zuen txapela. Bigarren txapela du nafarrak maila gorenean [2019an jantzi zuen estreinakoa]. Azken bi edizioetan irabazlearen txapela jantzi duen Hodei Ezpeleta mendarorarrak bigarren postua lortu du oraingoan. Lau kana-erdiko enbor, lau 60 ontzako eta lau oinbiko moztea zuten egin beharreko lana, eta Vicentek 41 minutu eta 11 segundoko denboran osatu zuen. Lau bat minutu gehiago behar izan zituen Ezpeletak berea egiteko (45:58), eta Oier Kañamares nafarra sailkatu zen hirugarren, 50:15 segundoko denborarekin. Atzetik gelditu ziren Julen Gabirondo, Josean Etxeberria eta azken orduan Jokin Urretabizkaiaren lekuan lehiatu zen Xuban Kañamares. Lesio bat tarteko ezin izan zen lehiatu Urretabizkaia. Txapelketa hasi aurretioxan, Mikel Mindegia aizkolari handia omendu zuten Nafarroa Arenara batutakoek. Hamar aldiz izan da Mindegia Euskal Herriko txapelduna eta bere ibilbidearen aitortza egin zion Euskadiko Herri Kirol Federazioak.

## Olatz Oñederrak irabazi du Mugertza krosa iragartzeko kartel lehiaketa

Olatz Oñederra Etxeberria diseinatzaile elgoibartarrak aurkeztutako *Lokatza eta pista=80* deitutako lanak irabazi du Mugertza krosaren 80. ekitaldia iragartzeko kartel lehiaketa. Mintxeta Atletismo Taldetik jakinarazi dutenez, hamar lan aurkeztu dituzte kartel lehiaketara eta irabazle aukeratu duten kartelak krosak bereak dituen ezaugarriak batzen dituela iritzi dio epaimahaiak, hala nola, euria, lokatza eta atleten ahalegina. "Hori guztia zifra borobil batean borobildua eta Mintxetako pista bereizgarriaren simila eginez". Olatz Oñederrak badaki zer den horrelako lehiaketa bat irabaztea, 2010ean ere bera izan baitzen irabazlea. Elgoibartar bezala, bere lana krosaren 80. urteurreneko irudia izatea ohorea dela adierazi du.





## Unai Beristain gailendu da Crosscountry moto lasterketan



Zapatu goizean gogotik egin zuen euria inguruotan, eta Idotorbeko mendi bideak lokatzez beteta topatu zituzten Crosscountry moto lasterketan parte hartu zuten 109 moto gidariak. Mendiko motorrekin jokatzeko diren hainbat modalitate daude: motokrosa, enduroa, hard enduroa, triala, raida... eta crosscountrya ere bada horietako bat. Zirkuituan zehar gairatu beharreko hainbat oztopo izaten dituzte moto gidariak, eta tramu bat basoan egiten dute. Joan den zapatuko Elgoibarko Crosscountryan Urnoblitzako moto klubekoek prestatu zuten ibilbidean lehiatu ziren moto gidariak Idotorbe inguruotan, eta Unai

Beristain (Azpeitia, 1996) moldatu zen hobekien aurrez aipaturiko baldintzetara. Azpeitiarrak zortzi itzuli eman zizkion basoko ibilbideari, bi ordu, minutu bat eta 19 segundoko denboran. Itzulirik azkarrena 12:55ean egin zuen. Lau minutu eta 26 segundoko aldea atera zion bigarren egin zuen Oihan Meokiri (2:05:45.997) eta zazpi minutuko aldea hirugarren postua lortu zuen Peio Etxebesteri (2:08:25.083). 18 urtez azpikoan mailan Mikel Armas Peres gailendu zen, eta juniorretan Aitor Murua Perez izan zen onena. Azkenik, beterranoen artean, Jon Makazaga izan zen azkarrena. 🏍️ Alberto Loyola

### 65 elgoibartar eta 8 mendarotar Behobia Donostiarako izena emandakoen artean



Behobia-Donostia lasterketaren 58. ekitaldia jokatu dute domekan eta iazko probako datuen antzekoak izango ditu. 30.000 parte-hartzaileen muga berdindu da aurten ere, eta emakumeak izango dira parte-hartzaileen %29,2, inoizko daturik onena. Fortuna kirol elkarteko arduradunek jakitera eman dutenez, edizio honetarako izen-ematean gora egin du gipuzkoarren kopuruak. 6.596 gipuzkoarrek eman dute izena, parte-hartzaileen %22,25: 1.783 emakumek eta 4.813 gizonak. Elgoibartik 65 lagunek eman dute parte hartzeko izena, bederatzi emakumek eta 56 gizonak. Mendarotik zortzi dira izena emandakoak, bakarra emakumea. Debarreneko Gipuzkoako herrietatik 251 lagun dira izena emandakoak: Deba (30), Itziar (9), Mutriku (14), Eibar (120), Soraluze (5), Elgoibar (65) eta Mendaro (8).

**LANA**

**Eskaerak**

Adinekoak zein umeak zaintzeko edo garbiketara lanak egiteko prest nago. Titulua daukat. **685 724 861**

Adinekoak zaintzeko edo garbiketara lanak egiteko prest nago. Esperientzia eta titulu soziosanitarioa ditut. **643 427 770**

Lan bila nabil. Enpresetan garbiketara lanak egin ahal izateko titulua daukat. **624 841 714**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka, etxeko langile moduan edo gauzez. Esperientzia handia eta erizain laguntzaile titulua ditut. **643 505 662**

Adineko emakume bat zaintzeko pertsona bat behar dugu. Esperientzia izatea ezinbestekoa. **637 258 819**

Lan egin nahi nuke. Adinekoak zaintzen eta lokalak eta etxeak garbitzen aritu izan naiz aurrez. Berehala lanean hasteko moduan nago. **632 347 444**

Adinekoak zaintzen edota etxeak, tabernak edo beste edozein lokal garbitzen egingo nuke lan, aste barruan. Berehala lanean hasteko prest. **632 319 546**

Adinekoak zaintzeko prest orduka. Esperientzia daukat. **631 489 128**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. Esperientzia daukat. **657 797 866**

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. Malgutasun handia. **632 915 336**


**KINTOAK**


1948an jaiotakoek kinto ospakizuna egingo dute azaroaren 18an. 12:00etan batuko dira Kalegoen plazan. Interesatuak 65 euro ordaindu behar dituzte azaroaren 16rako. Laboral Kutxako kontu honetan sartu behar da dirua: ES12 3035 0007 25 0071142599.

**BESTELAKOAK**

200 litroko akuariuma salgai, behar dituen osagai guztiekin. Martxan dago, oso egoera onean. **657 79 78 66**



 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzko Alkartasuna</p>  <p><b>ROSA Mª PINTADO</b></p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b> <b>rosapf@telefonica.net</b></p>	<p><b>Gure komunitatean bi etxebizitza daude elkarren ondoan, beheko solairuan. Etxebizitza bakoitzaren eskrituran jartzen du etxebizitza bakoitzak argi-patioarako irteera propioa duela, eta erabilera beste etxebizitzarekin partekatzen duela. Etxebizitzetako batek badu ate hori eraikina bera egin zutenetik, baina beste etxebizitzak leihoa bakarrik dauka patioara. Leihoa duen jabe horrek jakinarazi du patioara sartzeko ate bat ireki nahi duela. Nire galdera da ea etxebizitza horrek patioaren erabilera eskusibo partekatua duenez, atea ireki dezakeen, kontuan hartuta eraikina egiteko obran ez zutela aterik egin, leihoa baizik.</b></p> <p>Zuk adierazten duzun bezala, etxebizitza bakoitzaren eskrituran hitzez hitz transkribatzen da etxebizitza bakoitzak irteera propioa duela argi-patioara. Eta jarraitzen du esaten erabilera eskusiboa aldameneko etxebizitzarekin partekatzen dela. Beraz, jabe horrek eskriturak baimentzen dituen eskubideak egokitu ditzake erregistroz kanpoko errealitatera, eta, beraz, bidezkoa litzateke ate bat irekitzea. Eraikina egin zenetik etxebizitza batek atea izateak eta beste etxebizitzak leihoa ez du preskripzio-ondorioarik baten alde edo bestearen kaltetan.</p> <p><b>Ondorioa. Jabe horrek ate hori ireki dezake, eta ez du alde zuretik komunitatearen baimenik behar, nahiz eta perimetroko hormetan obra bat egin behar izan.</b></p> <p><b>GOAR</b> AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
--	---

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Luma!** Azaroaren 7an, 8 urte! Ondo pasa familiakoekin eta lagunekin. Segi hain alai!



Zorionak, **Maialen,** maite zaitugun guztion partez. Segi orain arte bezain alai!



Zorionak, **Elene eta Oinatz,** 13 eta 10 urte bete dituzuelako. Muxuak, etxekoan partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.  
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO  
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.  
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

 **Jarri ezazu zure publizitatea**  
**BARREN astekarian edo**  
**www.barren.eus webgunean**

**943 743 704**  
**688 769 657**

**barren.publi@elgoibarkoizarra.eus**  
Aita Agirre Kulturgunea, 3. 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

 **PINTURA ETA DEKORAZIOA**  
**CORDON VILARCHAO**

**cordonvilarchao@telefonica.net**  
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26

**943 740 570 / 636 986 162**

**gaitu.eus**

**BATU DITZAGUN GURE AHOTSAK**

TEKNOLOGIARI LIDERAREN BAKARRITZEO

MAKINEK GURE HIZKUNTZA EGIN DEZATEN, LEHENAGO IRAKATSI EGIN BEHAR DIEGU.

AHOTS ASKO ETA ASKOTARIKOAK BEHAR DITUGU, MILAKA ETA ZUREA ERE BAI, NOSKI.

AHOTS GRABAZIOAK:  
**ABENDUAK 2, 11:00-14:00**  
**AITA AGIRRE KULTURGUNEAN**

ANTOLATZEKO  
ESKERTUKO GENUKE  
AURREZ IZENA EMATEA.

 **643 499 169**  
(AMAIA)

 **gaitu.eus**

**EXPRESS ESKAINTZAK!**

**SAMSUNG VS15A60AGR5/WA**  
**ERRATZ-XURGAGAILUA**

**239 €**

- Kablerik gabe
- 40 minutuko autonomia
- Maskoten eskuila, funtzio anizduneko osagarria, txokoetarako osagarria eta 2 kargako estazioa 1ean barne
- Hartzidura: 150 AW-ra artekoa
- Geruza anitzeko iragazketa % 99,999ra arte: aire garbiaren emisioa
- 2,16 V
- 0,8L-ko gordailua



**MILARBIRE**

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - **bire@milar.es**  
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

**10 BARIKUA**

**16:30** Odol ateratzeak, Jubilatuen Biltokian.

**18:30** Erakusketa: 'Indarkeriak, emakumeak, gerrak'. Gervasio Sanchezen lana. Kultur Etxeko erakusketa gelan egongo da hilaren 26ra arte.

**18:30** Kafe tertulia: '7. artea'. Lilan.

**11 ZAPATUA**

**09:00** Zuhaitz landaketa.

Mintxetan elkartuko dira, Muskirutzuko lurretara joateko. Baso Biziak taldeak antolatuta, Lurguia fundazioarekin.

**11:00** 'Inesa Gaxen' liburuaren aurkezpena.

Olaia Irigoien elgoibartarrak aurkeztuko du liburua, Uxue Alberdirenkin batera. Lilan.

**11:30** Magosto Eguna. Galiza Etxeak antolatuta, gaztainak eta Galiziako ardo dastatzea. Maalako parkean.

**18:00** 'Beita' websailaren emanaldia, Mendaroko gaztetxean. Ondoren, solasaldia. Mendaroko Udalak eta Gazte Asanbladak antolatuta.

**12 DOMEKA**

**09:30** Mendi irteera: Urregarai mendira. Morkaikok eta herriko ikastetxeek antolatuta. Mintxetan elkartuko dira.

**12:30** Kontzertua: Pollo Rosa taldea. Aita Agirre kulturgunean, doan.

**16:30** Antzerkia: 'Anbotoko Mari'. Herriko Antzokian.

**13 ASTELEHENA**

**17:30** Hitzaldi-tailerra: 'Parkinsona, ikuspegi psikologikotik'. Deparkelek eta Udaleko Gizarte Zerbitzuen Sailak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**14 MARTITZENA**

**17:00** Irakurketa kluba: Alaine Agirreren 'Nire potxolita maitea'. LH4 eta LH5eko gaztetxoentzat. Udal liburutegian.

**15 EGUAZTENA**

**19:00** Mendi emanaldia: 'Julio Villar mendian eta itsasoan'. Morkaikok antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**19:00** Santanako ermita birgaitzeari buruzko bilera irekia. Mendaroko udaletxean.

**16 EGUENA**

**18:00** Hitzaldia: 'Soilik bai da bai'. Sortzen aholkularitza elkarteko Sheila Melcon psikoloak emango du. Lilan.

**17 BARIKUA**

**17:00** Skate parkearen 5. urteurreneko jaia. Skate parkean.

**19:00** Antzerki musikala: 'Itsatsita'. Herriko Antzokian.

**Zinea****Herriko Antzokian****'Sound of freedom'**

10, barikua: 19:00  
11, zapatua: 19:00 / 22:15  
12, domeka: 19:00  
13, astelehena: 21:00

**'Monstruo' (Ongarri)**

8 eguaztena: 21:00



**MEKANOSA**  
Errosario, 27-Elgoibar  
943 740 284

- IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- MULTIKOPISTAK
- FOTOKOPIAGAILUAK
- ERLOJU INDUSTRIALAK
- MARRAZKETA MATERIALA
- INFORMATIKA
- FAXA

Jon Aranao  
Guillermo Torres



San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337  
Abitzkerien ostirala: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30  
Larunbata: 11:00 - 13:00

Itzapindegi zerbitzua daukagu.  
Deitu ordua hartzeko.

**Eta, Debabarrenean zer?**

**Belar Hostoak, Soraluzen. Gaur, azaroak 10, 20:00etan**

Blues Hotsak jaialdiaren barruan, *Belar Hostoak* diskoaren berrinterpretazioa egingo dute gaur, Soraluzeko Herriko Antzokian. Sarrerak, 10 euro balio ditu. Txomin Artolak Walt Whitmanen *Leaves of Grass* liburutik aukeratutako testuak euskaratu eta *Belar Hostoak* diskoa argitaratu zuen 1978an, eta lan hura berrinterpretatu du haren seme Urbil Artolak beste hainbat musikarirekin, tartean, Jon Gurrutxaga elgoibartarrarekin.

**2023ko botika ordutegiak:** 09:00-13:00 / 16:00-20:00  
 GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)  
 OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.

**AZAROA**

- 10 BARIKUA
- 11 ZAPATUA
- 12 DOMEKA
- 13 ASTELEHENA
- 14 MARTITZENA
- 15 EGUAZTENA
- 16 EGUENA
- 17 BARIKUA

**Egunez**

- Fernandez Yudego
- Fernandez Yudego
- Oruesagasti Barrenetxea
- Ibañez Garitaonandia Arriola

**2023 urte guztian, gaeuz: 22:00-09:00**  
**Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar)**  
**943 203 052**

■ Fernandez:  
 Herriko Enparantza,4  
 Garagartza (Mendaro)  
 943 756 142

■ Ibañez:  
 Rekalde, 1 (Soraluze)  
 943 751 638

■ Oruesagasti:  
 Kalebarren, 9 (Soraluze)  
 943 751 384

Bueltan da ELGOIBARKO IZARRAREN

**TONBOLA**

**1.000 erregalu baino gehiago...**

Aurreko urteetan **TONBOLAK** izan duen estimazioak bultzatuta, **abenduaren 24an, 11:00etatik aurrera**, Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu **Kalegoen plazan**. Hasi gara opariak jasotzen! Eskerrik asko!



*Kanela, kalabaza eta gabxak" ipuinak*



*Pen drive-ak*



*Abanikoak*



*Karterak*



*Katiluak*



*Rifõnerak*



*Lurrinak*



*Bertziklatzeko poltsak*



*Xaboiak*



*"Metalaren arrastoak" liburuak*



643 499 169

943 741 626

elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus



Aste honetako erretratu zaharra Mari Tere Iraegik ekarri du BARRENEKO erredakziora. 1980an aterako argazkia da. Morkaiko Mendizale Elkarteak Piriniotara irteera antolatatu zuen, eta elurretan eskiatzen ibili ziren hainbat lagun. Erretratu hau Astunen aterata dago. Iñaki eta Edu Uribe anaiak eta Iban eta Aitor Zuazubizkar (♣) anaiak ageri dira erretratuan.



**Eta zu zer nahaigo dituzu  
koralina-izarak ala franelazkoak?**

**Etorri lagunak-era eta  
begiratu zein duzun gustukoen,  
neguari aurre egiten lagunduko  
dizuen aukera paregabea  
topatuko duzu bertan!**





## *Luis Castilla Gonzalez*

2023ko azaroaren 6an hil zen, 95 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Zure ondoan bizitza pozgarria izan da.***



## *Juan Iturbe Zarandona*

2023ko azaroaren 6an hil zen, 88 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Betirako izango zaitugu gogoan.***



I.URTEURRENA

## *Jesus Maria Coro Hubert*

2022ko azaroaren 10ean hil zen, 92 urte zituela.

***Betirako izango zaitugu gogoan.***

Etxeoak




I.URTEURRENA

## *Javier Andonegi Milikua*

2022ko azaroaren 1ean hil zen, 75 urte zituela.  
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan,  
azaroaren 12an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome  
Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.

***Zure oroimena beti izango da  
gure bihotzetan.***

Etxeoak



Eskertzak eta urteurrenak **943 743 704 / 943 744 112**  
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

# AGUR!

Laster edukiontzi erosoago  
eta eskuragarriago bat  
izango duzu nire ordez!

